

Testua eta marrazkiak: **JANOSCH**

Itzulpena: **AINHOA IRAZUSTABARRENA BARRIOLA**

Azal gogorrez koadernatua. 15x21,5 cm.

48 orrialde. Marrazkiak koloretan.

Hizkuntza hauetan eskuragarri:

- Euskaraz: "Posta tigrearentzat"  
Kalandraka-Pamiela. ISBN 978-84-7681-678-3
- Gaztelaniaz: "Correo para el tigre"  
Libros para soñar. ISBN 978-84-92608-10-2
- Galegoz: "Correo para tigre"  
Tras os montes. ISBN 978-84-8464-722-5
- Katalaneraz: "Carta per al tigre"  
Kalandraka-Hipòtesi. ISBN 978-84-15170-08-2
- Portugesez: "Correio para o tigre"  
Livros para sonhar. ISBN 978-989-8205-67-4


Salneurria: 15 €

## POSTA TIGREARENTZAT

«Tigre maitea:

**Zer moduz zaude? Ni ongi nago.**

**Ni itzuli bitartean zuritu tipulak eta egosi patatak, beharbada arraina izango dugu eta. Muxu bat, zure lagun Hartza».**



Hartz txikia arratzan egitera joan zenean, tinta urdinez betetako botila bat, papera eta gutun-azala eramán zituen berarekin, bere lagun tigre txikiari idazteko, hura oso bakarrik sentitzen baitzen hartza kanpoan zen bakoitzean. Baina, basoan, posta ez zen inoiz oso arina izan. Eta hala, batzuen buru-argitasunarekin eta besteen laguntzarekin, hartzaren eta tigrearena munduko komunikazio onenak zituen etxea izan zen. Berezkoa duen moldearekin, bai literaturaren arloan bai arlo artistikoan, samurtasunez beteriko marrazki eta binetekin, Janoschek irudikatzen du nola istorio bitxi honetako protagonistek lurreko posta, aireko posta eta telefonoa asmatu zituzten.

**JANOSCH** (Hindengurb, Alemania, 1931 -egun Zabrze, Polonia-)

Janosch de Horst Ecker-en ezizena da. Izen artistiko hori hartu zuen bere lehen editoreak bultzaturik. Hautzaroz zail baten ondotik, gazterik hasi zen lanean, errementari eta sarrailari gisa. II. Mundu Gerraren ostean, bere familia Mendebaldeko Alemaniara joan zen, eta oihal-lantegi batean hasi zen lanean. 1953an Munichera joan zen, eta aldi batez Arte Ederretako Eskolan ikasi zuen. Gero artista independente gisa hasi zen lanean, eta 1960an bere ibilbide artistiko eta literarioari hasiera eman zion liburua argitaratu zuen. 300 lanetik gora ditu, 70 hizkuntzara itzuliak, eta sari ugari jaso ditu. Nazioarteko ospea 1979an argitaratutako *Zein polita den Panama!* ipuinak eman zion -hori ere Pamielaren eta Kalandrakaren artean argitaratua-.

1980az geroztik Tenerifen bizi da, eta haurrentzako liburuak, narratiba, antzezlanak eta animazio-lanak idatzi eta irudiztatzen ditu. Osagai autobiografikoak dituen eleberriren bat ere idatzi du helduentzat, eta



idazle esanguratsuen testuak ere irudiztatu ditu, hala nola Charles Bukowskirenak.

- **Gaia:** adiskidetasuna, komunikazioak
- **Adin gomendatua:** 7 urtetik aurrera
- **Alderdi aipagarriak:** haur literaturako egungo klasikoa; *Zein polita den Panama!* ipuinaren egile eta ilustratzailearena (Kalandraka-Pamiela).
- **Aplikazioak:** animalia gizatiartuak; natura; bidaia; *locus amoenus* kontzeptua (toki ideala); komunikaziorako molde eta tresna desberdinak.